

# AZTERKETA BULEGOKO BULETINA

## AURKIBIDEA:

1. SOLDATAK GEHIAGO JAISTEAREN ARRISKUEZ OHARTARAZI DU ELGAK
2. MADRILEN ELKARRIZKETA SOZIALAK JARRAITZEN DU
3. IBEX 35-EKO ENPRESEN ETEKINAK %10,6 HAZI DIRA
4. VWEKO BEZA ETA MADRILEKIKO MENPEKOTASUNA
5. KUTXA: EUSKAL KUTXAK LIKIDATZEKO ATZERA KO KONTAKETA BADABIL
6. ZERTARAKO DAGO DIRUA? OPOR FISKALAK ETA ARDURAK
7. PROPOSAMENA: TTIP-ARI EZ!

**1.SOLDATAK GEHIAGO JAISTEAREN ARRISKUEZ OHARTARAZI DU ELGAK**

Duela gutxi ELGak “Desberdintasunen hazkundera: gazteen eta pobrezia-aren atzera pausoa” izeneko txostena kaleratu du. Txosten honetan Espainiar Estatuan soldatak gehiago jaistearen arriskuak azaltzen ditu.

Krisia hasi zenetik soldatak %2 jaitsi dira urtero batz besterik Espainiar Estatuan (soilik Grezian eman da jaitsiera handiagoa, %5ekoa). Horrenbesteko jaitsieraren ondoren, soldatak are gehiago jaisten jarraitzen badute, gizarte desberdintasunak hazi eta ekonomiaren kalteetan izango dela esan dute ELGAn. Hau da, pobrezia gero eta gehiago haziko da eta ekonomia gero eta ahulagoa izango da, gorpil zoro batean sartuz.

Honetaz gain, ELGak lan prekarioak dituen eraginak ere aztertzen ditu. Besteen artean langile txiroak %11,9 direla Estatuan azpimarratuz (ELGako estatuen artean 6.a da). Baita behin behinekotasunak ekonomian duen eragina ere, adibidez enpresen formakuntza aldetik, aldi baterako langileak ez direla formatzen aipatuz, honek luzera formatu gabeko langileria ekarriko duela ohartaraziz.

Txosten honetan agertzen diren datuak krisiaren eragina modu gordinean erakusten dute. Gizartearen desberdintasuna neurtzen dituen Gini koefizienteak ELGako desberdintasun handienak dituen 6. estatua dela Espainiarra erakusten du, eta pobrezia 18

urtez beherakoen artean %21,7koa dela, ELGako 4. handiena. Baita ere finkaturiko pobrezia %10,4etik %18,3ra igo dela 2007tik 2011ra.

ELak egoera hau eta politika hauek, aurrekontuen eta lan eskubide eta eskubide sozialen murrizketak, aplikatzen dituzten agintarien erantzunkizuna askotan salatu du. Politika hauen ondorioz egoera hortan gaude. ELGA berak ere ardura handia dauka, murrizketa politika hauek eskatu eta babestu egin dituelako.

Langileak ohartuak gaude soldata jaisteak dakartzan arriskuak, eta bizi dugun egoera gero eta latzagoaz. Guzti honi buelta nola eman da gure erronka.

**2.- MADRILEN ELKARRIZKETA SOZIALAK JARRAITZEN DU**

2014ko uztailaren 29a. Gaizki deituriko elkarrizketa sozialaren bilera berri bat Madrilen. Deituak, espainiar gobernua, CCOO, UGT, CEOE eta CEPYME. Eraitza “Hazkunde ekonomikoa eta enplegua indartzeko hiruko negoziazioarako proposamenen akordioa”.

Udako oporren bezperan, iritzi publikoaren aurreran ardura eta hobetzeko intentzioak agertzeko beharra. Hori baino ez da akordioan isladatzen. Dokumentua irakurri eta aztertuta, 21 orrialdekoa, gaiak asko baina guztia zehazteke. Hiru atal aztertzen dira:

- Iraupen luzeko eta 45 urtez gorakoen langabezia eta gazteen langabezia.- Egoera hobetzeko proposatzen dira, lan esperientziaren akreditazioa, lanbide heziketa duala, intermediario prosezuen hobekuntza, enplegu zerbitzuen modernizazioa, enpleguaren eskaintza eta eskariaren arteko intermediarioa, enplegu eta autoenpleguaren ataria, dualtasunaren aurkako borroka, etab. Zerbait berri? Guztiak garatzeaz, ebaluatzeaz, bultzatzeaz, eta jarraipena egiteaz. Orainarte bezalaxe. Neurri berririk ez.

- Enplegurako prestakuntza.- Nahiz eta ahultasunak onartu; sistema orokorraren koordinazio falta, enplegurako prestakuntzaren planifikazio estrategiko baten falta, benetako produkzio beharrekin harreman eza, informazio sistema bat ez izatea, emaitzen ebaluaziorik eta parte hartzen duten eragileen definiziorik ez izatea, eta konponbide bezala elkarrizketa sozialeko mahaian ezarritako printzipioen arabera prestakuntzarako hiruko akordio berri bat proposatzen da. Beti ere, prestakuntza eskubidea, enpresen lehiakortasunaren probetsuan eta errekurso publikoen beharrezan eta gardentasuna bermatuz egingo dena. Sistema berria 2015eko urtarrilan jarriko litzateke martxan.

Harritzekoa da, esparru honetan gertatutakoa jakinda, gaur oraindik ere epaitegien dagoena, dokumentuak aipamenik ere ez egitea fondoan banaketan eragile sozialek duten parte hartze eta finantziarioan, sistemaren porrotaren ezinbesteko zergaitia izan denean.

- Negoziazio kolektiboa.- Akordio berri baten alde lanean jarraitzeko asmoa agertzen da “ Enplegurako eta negoziatio kolektiborako akordioa”. Gaur egunean indarrean dagoen akordioaren ordezkia, barne malgutasuna eta gatazken konponketa judizial kanpoko izateko asmoak gehiago indartuz. Soldaten bilakaera eta lanbide arteko gutxieneko soldata ere aztertuz. Negoziazio kolektiboan eman diren azken erreformen ondoren, akordio berri honek lan eskubideen murrizketan jarraitzeko aukera ematen dio gobenuari.

Azken akordioak, aurrekontu politikaz eta fiskaltasunaz dihardu diru-sarrerak hobetzeko tresna bezala. Horregatik eragileen konpromisoa fiskaltasun erreformaz, iruzurraren aurkako borroka eta sektore publikoko soldata politikaz eta enpleguaz hitzegiten jarraitzeko. Azken atal honek, proposamen zehatzik gabekoak, guztira dokumentuaren orri bat baino ez dira. Rajoy-ren gobernuak bere benetako asmoa agertarazi du dagoeneko erreforma fiskala aztertzen duen proiektuan, errenta altuen eta kapitalaren zergen jeitsiera aipatzen duena, urtean 9.000 milioi euroko sarreren galera suposatuko duena, aurrekontuetan izango duen murrizketekin.

Dokumentuaren sarreraren hitzetan “errekuperazioa bultzatu, eta iraunkorra eta kalitatezkoa den enplegua sortzeko neurri kementsuak dira proposaturikoak”. Egoera ikusita honek txantxa itxura baino ez dauka. Gezurra dirudi oraindik ere CCOO-ek eta UGT-ek Rajoy-ren politika antisozialei babesa

ematea. Zeren truke?

### **3.- IBEX 35-EKO ENPRESEN ETEKINAK %10,6 HAZI DIRA**

Burtsan kotizatzen diren 35 enpresarik handienek osatzen dute IBEX-35 izeneko indizea: Banku handiak, konpainia elektrikoak, telefonia enpresak, arlo desberdinetan diharduten zerbitzuetako talde handiak (FCC, Ferrovial, etab.).

Enpresa hauek Balioen Merkatuko Batzorde Nazionalari (CNMV) emandako datuen arabera, 2014ko lehen seihilekoan 35 enpresa horiek 14.003 milioi euro irabazi zuten, hots, 2013ko lehen sei hiletan baino %10,6 gehiago.

Beste datu jakingarri bat da enpresa hauen etekinak epealdi horretako salmentaren %8 adina izan zirela.

Irabaziak horrela hazi izana erabat kontrajartzen da herritar gehienek egun bizi duten errealitatearekin: langabezia maila handia, enpleguaren prekarietate gero eta handiagoa, lanik gabe daudenan %50etik gora INEMen prestaziorik gabe... Langabezia, prekarietatea eta pobrezia dira gobernuek eta botere ekonomiko zein finantzarioak ezartzen diguten errezeta.

Datuok berretsi egiten dute bere garaian Lehiakortasunerako Enpresa-Kontseiluak (zeinen kideak IBEX-35eko enpresak diren) esan zuena: espero izatekoa da datozen urteetan

espainiar estatuan joera honi eustea, hots, enpresen etekinak Europar Batasuneko beste estatuetan baino gehiago haztea eta lan-kostu bakunak gero eta txikiagoak izatea.

Argi dago botere horiek antolatu duten festa honetan batzuri pagotxa tokatu zaiela, eta beste askori sufritzea. Nor sinetsiko du klase-borroka zaharkituta dagoen kontzeptua dela? Ireki begiak, eta esango didazu...

### **4.- VOLKSWAGENEO BEZa ETA MADRILEKIKO MENPEKOTASUNA**

Azken egunetan berriz aireratu da Volkswageneko BEZaren afera. Duela egun gutxi Barcina Presidentea Montoro Ministroarekin bildu zen, Madrilgo Gobernuak Nafarroako Parlamentuak onartutako legeak errekurritzean Nafarroako autogobernuaren aurka egiten duela salatzeke.

Han Ministroak iragarritakoa oso bestelakoa izan zen ordea. Bi urtez ahaztuta zirudien afera Auzitegi Gorenera eraman eta Volkswagenean 2007tik 2011ra arteko BEZaren itzulpena eskatu behar zutela. 1.513 milio euro hain zuten ere.

Volkswagenek (VW) saltzen dituen autoen BEZa Nafarroako ogasunari ematen dio. Autoen salmenta Catalunyaiko filial baten bitartez egiten duenez, esportatzen dituen autoen BEZa Estatuko ogasunak bueltatzen dio VWri. Gai honen inguruan ika-mika egon da urteetan zehar. Nafarroako Gobernuak, Madrilekoak eta VWek akordio bat egin izan zutela esan zen

bere garaian. Goikoetxea sailburuak onartu berri du akordioaren aktarik ez dagoela.

Nafarroan berehala sortu da alarma, dirutza horrek Nafarroaren porrot ekonomikoa suposatzen baitu. Montororen azkena errekurtsoa baztertu eta akordio bat proposatzea izan da, urtero Nafarroak 25 milioi euro ematea Estatuari epe horretako VWeko BEZagatik.

Honen atzean zer dagoen argitu nahian, iritzi eta ideia asko zabaldu dira: UPNri hauteskundeetan PPrekin batera joatea behartzeko mugimendua dela, hauteskundeetara begira PP Nafarroaren salbatzaile bezala aurkeztu nahi izan dela, PPK UPNri botatako ordagoa izan dela, eta abar.

Hauetakoren bat, edo guztiak, egia ote diren denborak erakutsiko digu. Argi dagoena Nafarroa berriro ere mehatxupean jarri dutela Madrildik, eta PPren zentralizazio politikaren beste pauso bat dela.

Azken finean, iluntasunez beteriko auzi honek ez du BEZaren arazo tekniko bat gordetzen, apustu eta arrazoi politikoak daudela atzean erakusten du. Eta bi aldeen arteko apustu politiko bat irabazteko, aurkariak baino indar gehiago erakutsi beharra dago.

Eta Nafarroako Gobernuak erakusten ez duena horixe da, indarra. Izan ere, UPNren Gobernuak ez da inoiz batere deseroso sentitu PPren zentralizazio kolpeen aurrean, guztiz aurkakoa.

Honen eraginez Nafarroako Itunak gero eta balio txikiagoa dauka; eskumen gutxi eta hemen erabakitakoa atzera botatzen dute Madrildik (azken 3 urteetan 14 Foru Lege errekurritu dira Madrildik). Ez dago inolako aldebikotasunik, beti nagusitzen da alde bakarreko politika eta UPNren gobernuak Estatuko gobernuarekiko duen menpekotasuna.

Foruaren Hobekuntza gero eta hutsalagoa da, eta premiazkoa da nafarron erabakitzeko eskubide beteari buruzko eztabaida sozial eta politikoa hastea; izan ere, horrelako errealitate demokratiko baten inguruan bildu beharko bailirateke indar sindikal, sozial eta politikoak.

#### **5.- KUTXA: EUSKAL KUTXAK LIKIDATZEKO ATZERAKO KONTAKETA BADABIL**

Pasadan irailaren 25ean, kutzako administrazio kontseilua bildu zen fundazio bankarioaren patronatoa izendatzeko, Hau onartua, datorren urriaren 24ean kutxa banku-fundazioa bihurtzeko Asanblada ospatuko da.

Kutxa banku-fundazio bihurtzearekin batera kontrol publiko eta soziala ezabatuko litzateke, Vital eta BBKn gertatu den bezala. Hau da gairitu nahi duten azken oztopoa, Euskal Kutxetan jasota dagoen gure aurrezkiaren eta aktiboen kontrola lortu aurretik. Aspaldian ari dira hau lortu nahian, Mario Fernandez Kutxabankeko presidentek behin eta berriz adierazi izan duen moduan.

EAJ, PP eta PSE baliabide komunitarioen

espoliaziorik handiena gauzatzeko behar den tresna politiko bilakatu dira: Behar beste lege erreformatu dute; kutzak banku bailiran kudeatu dituzte; jabegoa akzio bihurtu dute, merkatuan saldu eta erostea posible izan dadin; higiezinaren espekulazioko merkatuan hedatze politika ezin okerragoa egin dute; finantza-erakundeak erosi dituzte banku handi izan nahian; aktiboak eta ondarea saldu dituzte; Kutxabankek milaka bezeroren kontratuak putre-funtsen esku utzi dituzte, prezio irigarriaren truke; etxebizitzak desjabetzen dituzte; etekinak handitzeko baliabide ekonomikorik urrienak dituzten pertsonen komisiok ordainarazten dizkiete...

Ez dute argudio bat bera ere eman Euskal kutxen likidazioa euskal sare produktiboaren eta herritarren onerako dela azaltze aldera. Legea bete beharrezko aitzakia ere ez da bat ere sendoa; hala frogatu dugu Kutxabank pribatizatzearen aurkako Plataforma osatzen dugun sindikatuok eta mugimendu sozialek. Berriro ere agerian geratu da, gainera, Gipuzkoako Foru Aldundiak Kutxa banku-fundazio bihurtu ez dadin egin duen proposamenarekin.

Halaber, administrazio kontseiluan hartutako erabakia, Kutxaren pribatizatzeko prozesua atzera ezina egingo duena, CCOOen aldeko botoari esker aterako dela aurrera. Bere botoarekin CCOOek erabaki du Kutxaren izaera publiko eta soziala birrintzea, gure aurrezkiaren espekulazioko eta akziodunen esku jarri eta harekin negoziarioa egin dezaten.

Kutxa banku-fundazio bihurtzea galaraz dadila

eskatzen dugu. Hain zuzen, benetako eztabaida soziala eskatzen dugu.

Denbora badago; borondate politikoa izatekotan, alternatibak ere badaude. Mobilizazioei eutsiko diegu lortu arte. Horretarako, honakoak proposatzen ditugu:

1. Euskal Aurrezki-Kutxen izaera publiko eta soziala bitarteko guztiak erabiliaz defenditzea; ez dago haiek likidatzeko eta pribatizatzearen arrazoi sozial, ekonomiko edo politikorik. Orain arte egindako pribatizazio bidean atzera egin behar da.
2. Kutxabanken jite publikoa azpimarratzea, Fundazioen esku dauden akzioak euskal erakundeetara utziaz, eta kudeaketarako tresna partekatua bat sortzea, bezero nahiz langileok osatua.
3. Kutxabanken akzioak, gaurkoak zein kapitala zabaltzetik sor litezkeenak, ez daitezela Burtsara ateratu, eta bat ere ez diezaiotela kapital pribatuari saldu.
4. Kutxen-Kutxabanken ordezkariak eta kudeaketa organoak aldatzea, kontrol publiko eta soziala gauza ahal dadin, gure sare produktibo eta sozialaren onerako.
5. Euskal finantza-sistema publiko bat garatzeko marko arauemaile propio bat adostea; finantza-sistema horretan leku garrantzitsua izango dute Euskal

Kutxek-Kutxabankek. Geuri dagokigu erabakitzea gure aurrezkiarekin zer egin nahi dugun eta zer politika egin behar den gure bizi- eta lan-baldintzak hobetzeko.

6. Harrapaketa hau esparru politiko eta profesionalek antolatzen ari direnek dimisioa eman dezatela, eta itzul diezaietela euskal erakundeei nahi eta behar dugun banku publikoaren eredia erabakitzeko ahalmena.

#### **6.- ZERTARAKO DAGO DIRUA? OPOR FISKALAK ETA ARDURAK**

Joan den abuztuaren 1ean Eusko Jaurlaritzak, EAEko hiru foru-aldundien ordezkari gisa ere, Madrilgo Hazienda ministerioan 30 milioi euro sartu zituen opor fiskalen inguruan gertatu zenagatik Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak ezarritako isuna ordaintzeko. Isun hau ordaindu eta zenbatekoa administrazioen artean banatzeko erabakia lau erakunde horiek adostu zuten.

Isuna ez zen lege kanpoko zirela ebatzitzeko neurri fiskalen ondorio izan, laguntza haiek berreskuratzen hasterako hainbat urte igaro zelako baizik, legeak administrazioak horretara behartzen bazituen ere. Ogasunek Europar Batzordeari adarra jo zioten behin eta berriz eta gizarteari gezurra esan zioten lotsagabe; sarritan esan zuten laguntza fiskalak berreskuratuta zeudela, baina hori ez zen egia. Izan ere, ogasunak ez ziren laguntzak berreskuratzen hasi Batzordeak Auzitegiari

eskatu zion arte atzeratutako egun bakoitzeko zigorra ezar diezaiela.

Isun hau ordainduta, EAEko erakundeek 30 milioi euro gutxiago izango dute hainbat arlotarako, esaterako lan- eta famili-bizitza bateratzeko prestazioa, Larrialdi Sozialeko Laguntzak, nahiz osasungintza edo hezkuntza. Horregatik, ezin dira onartu Ricardo Gatzagaetxeberria Ogasun sailburuaren adierazpenak, esanaz isunak ez zuela finantzetan ondoriorik izango, erakundeek honelako egoeretarako funtsak izaten dituztelako gordeta. Haatik, Jaurlaritzaren aurrekontu politika medio, gasturako gehieneko muga bat dauka, eta isun honengatik 30 milioi ordaintzen baditu, beste nonbait kendu behar ditu; halaxe gertatu da aipatutako bateratzeko laguntzekin.

Auzitegi europarrak isuna ezarri zuenean ELAK salatu zuen gastu sozialean murrizketa gehiago ekarriko zuela. Horixe ari da gertatzen. Halaber, EAEko Goi-Auzitegiaren Fiskaltzan salaketa egin genuen, argitzearren zein arduraren dagokien enpresei dirua itzul zezaten ez eskatzea erabaki zutenei, hau egitera derrigortuta egonagatik ere. ELAren ustez positiboa da salaketa hau onartu izana, baita fiskaltzak iragartzea uda ostean dagozkion diligentziak egingo zirela.

ELAren iritziz, gainera, arduraren politiko nabarmena dago kasu honetan, eta erabakiak hartu zituztenek -ez pertsona, ez alderdiek- ez dute beren gain hartu nahi; hauek eragin dute 30 milioi euro diru publiko ordaindu behar

izatea.

### **7.- PROPOSAMENA: TTIP-ari EZ!**

Datorren urriaren 11an Europa mailan, Europa eta AEBn arteko merkataritza eta inbertsiorako hitzarmenaren (TTIP) aurkako mobilizazioa eguna deitu da, eta Guneak urriaren 10erako ostirala, gaitzespen ekitaldi ezbedinak antolatu ditu.

Ez da gaia jorratzen dugun lehen aldia. Mehatxua handia da eta aurrera eramatekotan ondorioak ere oso larriak izango lirateke.

TTIP-a Europar Batasunaren (EB) eta Estatu Batuen (AEB) artean, itzalean negoziatzen ari den ustezko merkataritza hitzarmen zabal bat da. Helburua ez da EB-aren eta AEB-en arteko muga-zergak kitzatzea, haratago doa. Benetako funtsa Atlantikoaren bi aldeetako merkataritza jarduerari traba egiten dioten “oztopoak” ezabatzea da. Hau da, batetik lan eta ingurumen alorreko oinarritzko araudiak deuseztatu edo moteldu nahi ditu, lan eskubideak, elikagi seguruen arauak, sustantzi kimiko toxikoen erregulazioa, datuen babeserako legeak eta banku sektoreko arauak adibidez eta bestetik, merkatu berriak sortu nahi ditu, sektore publikokoa, administrazioak estatu kideen enpresa pribatuei kontratuen adkjudikazioa emanik. Enpresek askatasun osoz eta esparru guztietan aritzea bilatzen da. Are gehiago, TTIP-ak kanpo inbertsoreek gobernua demandatzeko aukera emango luke, ad hoc eratutako arbitraia epaitegien aurrean, erabaki publikoak direla eta ustezko irabaziak ez

izatearen kaltean oinarrituta, “inbertsore-estatu” deritzon demandak.

Tratatuaren negoziazio prozesua sekretua eta ez-demokratikoa izatea helburu larri eta ondorio kaltegarrien proba argia da. Lanpostuen eta eskubide sindikalen galera, lan eskubideen ez izatea, negoziazio kolektiboaren mehatxua, elikadura segurtasunaren ez arautzea, genetikoki eraldatutako organismoak mugatzen dituzten erregulazioen berrikustea, pestizidak, hormonekin tratatutako okela, ingurumen desregulazioa, zerbitzu publikoei erosoia, pribatasunari, egile eskubideei, patente eta markei...

Beraz, TTIP-a ez da bi merkatal lehiakideen arteko hitzarmena, baizik eta europar eta estatubatuar gizarteei transnazionalak egindako eraso, merkatuak ireki eta liberalizatzeko asmoarekin. Premia, azaleratu berri diren ekonomiek sortu dute, Txina, Brasil eta India, orainarte ezagututako potentzia kapitalisten hemegonia arriskuan jarri dute eta.

Honelako akordioek gizarte zibilarengan izan ditzaketen ondorioei buruzko informazio eta aurretik emandako esperientzien ezagupen nahikoa badaukagu. Horregatik, beraien intentzioei aurre egin eta gure kexa eta ez onartzea agertarazteko beharra. Datorren urriaren 9an Iruñan eta 10ean Bilbon, aukera ezin hobea dugu horretarako.